

Espainiako Audientzia Nazionalak 2 urte eta erdiko espetxe zigorra eskatu dio iturmendiar bati

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 13/06/2024

Sare sozialetan argitaratutako iruzkinen harira terrorismoa goratzeko eta biktimak umiliatzeko delitua egotzi diote.

Otsailaren 6an, 63 urteko *emakume bat atxilotu zuten Iturmendin*, sare sozialetan argitaratuko mezu batzuengatik. Egun hartan, Espainiako Auzitegi Nazionalera eraman zuten, deklaratzeko, eta emakumeak honi uko egin zion. Orain, Espainiako Auzitegi Nazionaleko fiskaltzak bi urte eta erdiko espetxe zigorra eta 7.000 euroko fidantza ordaintzea eskatu dio emakumeari. ASKE antolakundeak astebeteen ematen den adierazpen askatasunaren aurkako bigarren erasoa dela salatu du, izan ere, Meatzaldean astelehenean sare sozialetan partekatutako mezuengatik beste *gazte bat atxilotua eta interrogatua* izan zen. Era berean, Iturmendiko elkartasun taldeak herri batzarra deitu du plazan gaur, ekainak 13, 19:00etan.

<https://eh.lahaine.org/espainiako-audientzia-nazionalak-2-urte>